

2019ko abendua



Añanako Kuadrilla
Cuadrilla de Añana

AÑANAKO GAZTEEN BERDINTASUNERAKO DIAGNOSTIKOA

Helena Ortiz de Lejarazu
RED KUORUM



Zuzendaritza: Ana Valdeolivas. Añanako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua.



Kofinantzazioa: Emakunde - Emakumearen Euskal Institutua.



Laguntza teknikoa:
Helena Ortiz de Lejarazu eta German Zarrabeitia
Red Kuorum SL

Indizea

SARRERA	4
1. HELBURUAK	6
1.1 HELBURU OROKORRA.....	6
1.2 HELBURU ZEHATZAK.....	7
2. METODOLOGIA.....	8
2.1 LAN PROZESUAREN ESKEMA.....	8
2.2. PROIEKTUAREN PRESTAKUNTZA	9
1.1 LAN TALDEAREN SORRERA ETA MARTXAN JARTZEA.....	9
1.2 AURREKARIEN ANALISIA: BIGARREN MAILAKO DATUAK JASOTZEA	9
2.3 LANDA LANA DIAGNOSTIKOA EGITEKO	10
2.1 ELKARRIZKETA SAKONAK.....	10
2.2 12 ETA 18 URTE ARTEKO GAZTEEI EGINDAKO GALDETEGIA.....	10
2.3 LAN TALDEAK NESKA ETA MUTILEKIN.....	12
2.3 LANDA LANA PLANA EGITEKO.....	12
3.1 LAN TALDEAK.....	12
3.2 EMAITZEN AURKEZPENA ETA ALDERATZEA	12
3. EMAITZEN ANALISIA.	13
3.1. BALOREAK, LAN PROIEKTUA ETA EMANTZIPAZIOA.....	13
3.2 EKONOMIA ETA DIRU-SARRERAK	20
3.3 GENERO EZBERDINTASUNAK HAUTEMATEA	24
3.4 DISKRIMINAZIO EGOERAK	29
3.5 GIZARTE HARREMANAK ETA LAGUNAK	34
3.6 GURASOEKIKO HARREMANAK	39
3.7 ZAINZA ETA NORBERAREN ZAINZA	42
3.8. BIKOTE HARREMANAK ETA INDARKERIA MATXISTA.....	47

<u>I. ERANSKINA: GALDETEGI KUANTITATIBOA.....</u>	<u>53</u>
1. EGUNGO EGOERA.....	53
2. LAN PROIEKTUA ETA EMANTZIPAZIOA.....	53
3. EKONOMIA ETA DIRU-SARRERAK.....	56
4. HAUTEMANDAKO GENEROEN ARTEKO EZBERDINTASUNAK.....	58
5. DISKRIMINAZIO EGOERAK.....	59
6. GIZARTE HARREMANAK ETA LAGUNAK.....	63
7. GURASOEKIKO HARREMANAK.....	66
8. ETXEKO ETA ZAINZA LANAK.....	67
<u>2. ERANSKINA. GAZTEEN TALDE GIDOIA.....</u>	<u>78</u>
<u>GRAFIKOEN TAULA.....</u>	<u>81</u>

SARRERA

Emakume gazteek historikoki ikusezintasuna pairatu duen taldea osatzen dute, eta azterketa soziologikoetan eta politika publikoen planifikazio prozesuetan ez dira aintzat hartuak izan.

Emakume gazteen errealitatea emakume helduei buruzko kontzepzio eta ikuspegi teorikoetan oinarrituta, gazteen berezitasuna aitortu gabe, edo gazteek sexurik ez dutenaren kontzepzioetan oinarrituz aztertu ohi da, baina kasu askotan ikuspegi teoriko androzentrikoak gailentzen dira.

Erakunde izaera duen arazo honetan oinarrituz, mugimendu feministetan hautemandako gizarte joera ematen da, hau da, emakumeen parte hartzea orokorrean jaitea, batetik, *dagoeneko lortutako berdintasunaren irudikeriaren* efektua deitutakoaren eraginaren ondorio bezala, eta bestetik, herritarren parte hartzearen jaitsieraren joera orokor bezala. Orokortutako jaitsiera honen barruan, markatuena belaunaldi erreleborik eza da, emakume mugimendu eta elkarte askok berdintasunaren aldeko borrokan arduraz ikusten dutena. Diotenez, diskriminazioaren kontzientzia karrera profesionala garatu nahi denean bakarrik heltzen da, eta batez ere, umeak izatean.

Era berean, eta gizonak gero eta gehiago berdintasun politiken parte eta objektu aktibo bezala aitortuak badira, maskulinitate berrien gaineko lanen, erantzukizun partekatua edo sensibilizazio eta prebentzioan genero indarkeriaren alorrak gizon helduak dituzte helburu, eta gazte eta nerabeekin egiten den lana askotan alde batera uzten da.

Testuinguru honetan, ondoren aurkeztuko den lanaren helburua Añanako nerabe eta gazteen kolektiboaren genero berdintasunaren gaineko egoeraren diagnostikoa egitea izan da, duela gutxi onartu den Kuadrilako I. Berdintasun Planean sartu beharreko neurri eta ekintza zehatzak hautemateko.

Hori guztia bereziki zainduz gazteen (batez ere neska gazteen) tokiko testuinguru soziopolitikoan egungo eta etorkizuneko parte hartzea sustatzea. Horretarako, ezinbestekotzat jo da publiko objektiboari oso ondo egokitutako lan prozesu bat garatzea, metodologiaren eraginkortasuna bilatuz berdintasunaren ikuspegitik, baina baita hezkuntza ez formalaren izaera eta izaera ludikoa ere, askotan gazte politiken garapenean erabiltzen dena.


Beraz, izaera sektoriala izan duen lan bat izan da, genero ikuspegia Añanako Kuadrilaren politika zehatzean sartzeko jorratzen duelako, baina baita sekzio arteko proiektu batean ere, hau da, diskriminazio ugari lantzen dituen analisirako tresnak erabiltzen dituen, eta nortasun ezberdinen multzoek kolektibo batek eskubide eta aukerak eskuratzeko izan ditzakeen eragina ulertzen laguntzen duena.

Sekzio artekotasuna oinarritzko irizpide bat da eskubideen defentsan eta politikak egitean. Izan ere, generoa beste nortasunekin gurutzatzeko modua aztertzen du -kasu honetan adina, sekzio artekotasun eta konexio hauek eskubide eta aukerak eskuratzekoan duten eragina aztertzen duen bitartean. Modu horretan, emakumeen kolektibo zehatz batzuk bereziki ahulgarriak dira diskriminazio eta abusu mota batzuen aurrean. Nortasunak konbinatzearen ondorioz ematen diren diskriminazio mota ezberdinak eta desabantailak azaltzen saiatzen da, eta ez bakarrik horien batuketara, ezberdintasunak onartu bai baina desberdintasunak jasaten ez diren bizikidetzako helmuga politikoaren alde lan eginez.

Kontzeptu hau, egun politika feministaren teoriaren erdigunean dagoena, eta gero eta gehiago planifikazio dokumentuetara helarazten dena erakunde jardunean ere lehenatasuna izateko, zehaztasunerako zailtasunak izaten ari ditu, jarduera lehenatasunak hautematen dituzten analisi eta diagnostiko faltaren ondoriozkoak, berdintasun zein gazteriaren eremuan neurri zehatzak hartzea errazten dutenak.

Lan honekin egoera honi aurre egiten saiatu gara, zalantzarik gabe lehentasuna dutenetako bat, gazteen egoera eta arazoak ulertzeko tekniken konbinazio baten bidez. Horretarako, beharrezkoa da dauden espazioak aintzat hartzea, bereziki hezkuntza formal eta ez formaleko zentroak.

Añanan hezkuntza formaleko lau zentro daude, eta hezkuntza ez formaleko hainbat espazio eta erakunde finantzazioa duten denbora libreko jarduerak:



2017an hezkuntza partekatuko Batzordea eratu zen, Kuadrilako 4 ikastetxeek eta prebentzio sozio-komunitarioko teknikariak osatua. Egun, egonkortze fasean dagoen lan teknikoko espazio bezala konfiguratu da. Aurten, Berdintasun Zerbitzuak Iruña Okan hiru mailako formazioa antolatu du: gazteekin, begiraleekin eta irakasleekin. Azken saioan beste hiru udalerrietako ikastetxeetako ordezkariak gonbidatu ditugu, hezkuntza partekatuko Batzordearen koordinazioari esker.

Beraz, modu sistematikoan jorratzen hasi den eremua da, Añanako Kuadrilako I. Berdintasun Planean hautemandako beharrei erantzunez, 1.2.3.1 ekintzan *Berdintasun Zerbitzua buru duen hezkuntza partekatuko Batzordea* egonkortzeko beharra aurreikusten zuen.

Aurrerapenak ikusten hasi badira ere, -izan ere, lau zentroetan hezkuntza partekatuko proiektuak daude martxan-, koordinazio erakunde bat egotea ez da nahikoa hezkuntza partekatuan jorratu diren aurrerapenak zeintzuk diren sakontasunez aztertzen duen diagnostiko bat izateko, eta zehazteko zein beharrek duten lehentasuna edota egingarriak diren.

Dokumentu honekin, finean, errazten duten elementuei eta dauden oztopoei buruzko informazioa eman nahi da, eta bideratutako ekintza estrategiko bat diseinatu da, non hezkuntza komunitate osoak zer denaren eta modu eraginkorrean berdintasunaren alde lan egitea lortzeko moduaren gaineko elkarrekiko ikuspegia partekatzen duen.

1. HELBURUAK

1.1 HELBURU OROKORRA

Proiektuaren helburu nagusia Añanako Kuadrilako 12 eta 18 urte arteko nerabe eta gazteen kolektiboan emakume eta gizonen arteko berdintasun kontzeptuaren hedapenaren analisia egitea da, eta Añanako Kuadrilako gazteen arteko Berdintasun Plan bat, ikastetxeak eta denbora libreko espazioak barne hartzen dituena, eta gazte eta nerabeak, irakasleak, begiraleak eta gurasoak -IGE- inplikatzeko modu koordinatu eta integralean.



1.2 HELBURU ZEHATZAK

Añanako gazteen artean emakume eta gizonen arteko berdintasunaren ezagutza, baloreak eta hautemate maila zehaztu:

- Berdintasun eremuan herritarrengan batez ere eragina duten hiru ardatzetan arreta jarri: ahalduntzea eta parte-hartze soziopolitikoak, zaintzak eta indarkeria matxista.
- Emakume nerabe eta gazteen beharren ulermenean sakonduz genero ikuspegitik, ikerketa parte-hartzaile metodoak erabiliz.
- Maskulinitatearen eraikuntza prozesuaren eta horri lotutako balore berrien eta gazteen artean jarraitzen duten elementu eta balore androzentrikoen aldaketa identifikatuz.

Añanako ikastetxeetako irakasleen artean emakume eta gizonen arteko berdintasunaren ezagutza, baloreak eta hautemate maila zehaztu:

- Berdintasun eremuko ikuspegi eta baloreak, ezagutzak eta jarrera, kudeaketan genero ikuspegiaren transbertsalizazioa.
- Orientazio akademiko eta profesionalean genero ikuspegia berrikusi.
- Hezkuntza partekatuko proiektuak eta berdintasun parte-hartze prozesuak berrikusi eta genero indarkeriaren prebentzioa hezkuntza sisteman
- Ikastetxeetan indarkeria matxista hautematekotan garatu beharreko ekintzen ezagutza maila berrikusi.

Añanako familien eta IGEen artean emakume eta gizonen arteko berdintasunaren ezagutza, baloreak eta hautemate maila zehaztu.

- Berdintasun alorreko ikuspegi eta baloreak, ezagutza eta jarrerak
- Euren seme-alaben hezkuntza partekatuari egindako ekarpen propioen gaineko hautemateak
- Hezkuntza partekatuari emandako garrantzia eta etxetik berdintasunerako hezkuntzan parte hartzeko aurretiko jarrera

Añanako begiraleen artean emakume eta gizonen arteko berdintasunaren ezagutza, baloreak eta hautemate maila zehaztu.

- Berdintasun alorreko ikuspegi eta baloreak, ezagutza eta jarrerak
- Hezkuntza ez formaleko proiektuetan genero ikuspegiaren transbertsalizazio maila
- Ikastetxeetan indarkeria matxista hautematekotan garatu beharreko ekintzen ezagutza maila.

2. METODOLOGIA

2.1 LAN PROZESUAREN ESKEMA

1. PRESTAKUNTZA

- 1.1. Talde motorearen bilera eta konfigurazioa
 - Kontraste proiektua martxan jartzea eta materialak aurkeztea.
- 1.2 Aurrekariak eta dokumentu materiala berrikustea
 - Akta, ekintza proiektuak eta inguruko praktika onak berrikusi

2. DIAGNOSTIKOA

- 2.1 Lau profiei elkarrizketa sakonak egin:
 - Irakasleria: 4 elkarrizketa
 - IGEak: 4 elkarrizketa
 - Begiraleak: 4 elkarrizketa.
- 2.2 On-line galdetegia:
 - Balioztatzeko neska eta mutilen ekarpenak jaso.
- 2.3 Taldeak neska eta mutilekin.
 - 4 eztabaida talde Kuadrilako lurralde logikan arreta jarritz

3.1 EKINTZA PLANA

- Diagnostikoa aurkezteko eta helburuak zehazteko lan taldeak:
 - 1. Irakasleriarekin taldea.
 - 1. Begiraleekin taldea.
 - 1. IGEekin taldea.
- 3.2 ekarpenak sartu eta amaierako dokumentua

2.2. PROIEKTUA PRESTATZEA

1.1 Lan taldea sortu eta martxan jartzea

Lehendabiziko pausua **Proiektuaren Jarraipen Taldea** sortzea izan da, Berdintasun Teknikariek eta Red Kuorum-ek osatua

Hasierako bileraren xedea izan zen **helburuak eta metodologia adostu eta zehazten amaitu, zalantzak argitu, lan eta koordinazio prozedura ezarri** adostutako egutegi batekin, eta hurrengo pausuak zehaztu.

Bilera hau Añanako gazteekin garatutako politika eta neurrien aurrekariak sakontasunez ezagutzeko erabili zen, ikastetxeetan zein aisialdi eta hezkuntza ez formaleko espazioetan, edo udal politiketatik.

1.2 Aurrekarien analisia: datuen eta bigarren mailako iturrien bilketa.

Informazioa jasotzeko tresnen diseinuari ekin aurretik, bigarren mailako iturrien analisia egin zen -jardueren deskribapena, Añanako zentroetan hezkuntza partekatuko planak, gazteekin egindako ekintzak berdintasun politiketan gazteenek duten presentzia aztertzeke, eta kontrakoa, gazteei zuzendutako politiketan berdintasunak duen presentzia, elementu komunak eta ez komunak, egungo adostasun puntuak eta etorkizuneko bateratze bideak zehazteko.

Analisi, helburu eta jarduera neurrien, ekimenen eta praktika onen bilaketarekin osatu zen. Gipuzkoako denbora libreko taldeetan genero ikuspegia sartzeari buruzko analisiak erabili ziren, Estatuan gazteriaren hautemateen azken barometroaren emaitzak eta INE, Eustat eta Garapen-en datu estatistikoak.

Azkenik, hezkuntza partekatua, gazteak eta berdintasunari buruzko ikerketa lanen aurrekariak ere aztertu ziren, baita analisi kuantitatiboari buruz ere berdintasun eremuko ezagutzak, jarrerak eta baloreen inguruan: Uribe Kostan, Urola Garaian, Amurrion eta Gasteizen egindako azterketak.

Helburua ikerketarako marko teoriko txiki bat egitea izango da, eta batez ere gaia jorratzeko joeren informazioa jasotzea.

2.3 DIAGNOSTIKOA EGITEKO LANDA LANA

2.1 elkarrizketa sakonak

Lehenengo pausua bi profilei elkarrizketa sakonak egitea izan zen: begiraleak eta IGEak. Bi kasuetan 4 elkarrizketa egin ziren profil bakoitzarentzat

Begiraleen kasuan, **4 elkarrizketak ondorengo profilei egin zitzaizkien:**

- Gazteleku Langraitz
- Urratsa taldea
- Gazte Kluba Ribabellosa
- Udako eta neguko udalekuetako arduradunak

IGEen kasuan, **4 elkarrizketak 8 eta 19 urte arteko gazteen amei egin zitzaizkien**, institutuko IGEtik jaso baziren ere, seme-alabetako batek ikerketarako egokia den adina duela bermatzeko.

Helburua 2. puntuan kolektibo bakoitzarentzat jasotako helburu zehatzekin lotutako diagnostiko bat egitea zen.

Elkarrizketak telefonoz egin ziren uztailaren 29aren eta abuztuaren 5aren artean, amaiera irekiko erdi-egituraturatutako gidoi batean oinarrituta, eta 40 minutu eta ordu bat arteko iraupena izan zuten.

Irakasleei egindako elkarrizketak uztailaren 24an Badaia Institutuan ordu eta erdiko eztabaida talde batez ordezkatuak izan ziren. **8 pertsona agertu ziren**, zentroko zuzendaria barne.

Guztira 16 pertsonak hartu dute parte fase honetan. 2 gizon eta 14 emakume.


2.2 12 eta 18 urte arteko gazteei egindako elkarrizketa.

Landa informazioa jasotzeko prozesuaren bigarren pausua galdetegi bat egitea izan da, berdintasun eremuko gazteen ezagutza, baloreak eta hautematearen gaineko informazio kuantitatiboa lortzeko asmoz.


Metodologia kuantitatiboaren erabilerak egoeraren panoramika bat lortzeko aukera eman digu, gazteengan eragin gehien eta horiek gehien arduratzen dituen arazoak zeintzuk diren, modu inkontzientean dauden estereotipo eta desberdintasunak zeintzuk diren, zein arazo gaunditzen ari diren edo eragin gutxiago duten, baita gai honen gainean duten ezagutza eta jarrerak ere.

- Unibertsoa:** Ikerketa unibertsoa Badaia Institutuko ikasleak diren Añanako Kuadrilako 12 eta 18 urte arteko gazteak izan dira.
- Metodologia:** On-line egindako inkestak. Gazteentzako galdetegiak institutuko informatika geletan egingo dira.
 - **Iraupena:** g.g.b.: 40 minutu
 - **Eremua:** Añanako Kuadrila
 - **Laginketa:** Zentroko lau mailetakako bakoitzeko kurtso bat aukeratu da, ausaz, adin ezberdinen orekatutako ordezkari izateko.

- **Galdetegia:** Red Kuorumek diseinatu Añanako Kuadrilaren ikuskaritzarekin eta helburuen kapituluaren ezarritako diagnostiko helburuak betetzeko asmoz. Azaroaren 26 eta 27an egin zen



Grafikoa 1: Lagina adinaren arabera banatuta. Iturria: Badaiaiko Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak egina.



Grafikoa 2: Iturria: Badaiaiko Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak egina, mutilak 40, neskek 28

Guztira 68 gaztek hartu dute parte fase honetan: 13 eta 25 urte arteko 40 mutil eta 28 neska. Hala ere, laginaren gehiengoa 13 eta 16 urte arteko nerabeetan zentratzen da.

2.3 Lan taldeak neska eta mutilekin.

Galdetegietan jasotako diagnostikoa alderatzeko eta gazteen ekarpenak jasotzeko, 5 lan talde osatuko dira Añanako Kuadrilako neska eta mutilekin,

- Talde bat Langraitzeko Gaztelekuan- azaroaren 22an egin zen
- 6 neska eta 2 mutilek hartu zuten parte.
- Badaia Institutuko 2 neska talde: Abenduaren 13an egin zen
 - Talde batean 16 neska
 - Talde batean 11 neska
- Badaia Institutuko 2 mutil talde. Abenduaren 3an egin zen
 - Talde batean 6 mutil
 - Talde batean 5 mutil.

Guztira 46 gaztek hartu dute parte fase honetan. 33 neska eta 13 mutil

Diagnostikoan, guztira, parte hartu dute

- IGEak: 4 emakume
- Begiraleak: 2 emakume eta 2 gizon
- Irakasleak 8 emakume
- Ikasleak inkesta: 28 neska eta 40 mutil
- Ikasleak taldeak 33 neska eta 13 mutil

**TEKNIKA EZBERDINEN BIDEZ PARTAIDETZAK GUZTIRA: 75
EMAKUME ETA 57 GIZON**

2.3 PLANA EGITEKO LANDA LANA

3.1 lan taldeak

Elkarrizketa eta galdetegiaren bidez diagnostikoa egin ondoren, diagnostikoko emaitzak aurkezteko eta jarduera proposamenak bilatzeko dinamika bat egingo da.

Zehazki, ondorengo dinamikak egin dira

- Irakasleekin eztabaida talde 1. 6 irakaslek hartu dute parte. 3 gizon eta 3 emakume.
- IGE eta begiraleekin eztabaida talde 1. 10 pertsonak hartu dute parte. 8 emakume eta 3 gizon.

3.2 Emaitzen aurkezpena eta kontrastea

Neurrien amaierako txostena aurkeztu eta berdintasun Zerbitzuarekin alderatu zen.

3. EMAITZEN ANALISIA.

3.1. BALOREAK, LAN PROIEKTUA ETA EMANTZIPAZIOA

Analisi globala Añanako gazteen baloreen berrikuspenarekin hasi da. Lehenengo analisi honek hasieratik utzi du agerian, berdintasun eremuan egindako aurrerapen nabarmenez gain, genero rolek errotuta jarraitzen dutela.


Euren lehentasunei buruz galdetzean, neskek mutilek baino garrantzi bikoitza ematen diote nota onak ateratzeari eta arduratsuk izateari, gurasoei eta hezkuntza sistemari berari; obeditzearekin lotutako alderdiak biak, eta mutilek baino gehiago lehenesten dute maite duten pertsonak zaintzeari ematen dioten garrantzia.

Aldiz, mutilek ondo pasatzeari ematen diote lehentasuna. Hau neskentzat ere garrantzitsua da baina hezkuntza eremuko erantzukizunak euren gain hartzea baino gutxiago, eta mutilek erosteko ahalmena hiru aldiz gehiago aipatzen dute, eta independentzia neskak baino bi aldiz gehiago. Izan ere, nesken heren batek bakarrik aipatzen du, eta kasuen erdiak, hurrenez hurren. Datu interesgarria da mutilen artean zaintzaren kontzeptualizazioa berdinen arteko laguntasun eta leialtasunarekin identifikatzen dela, neskek egiten dutenaren bikoitza. Gazteen arteko sororitatea, beraz, landu beharreko elementu bat izaten jarraitzen du.

Eztabaida taldeek analisi kualitatiboak egiaztatzen dituzte, lehen lekuan familiaren garrantzia, bikotearena eta institutuarena aipatuz.


Elkarrizketatutako amek eta hezitzaile ez formalek, aldiz, ez dute bi sexuen arteko baloreen arteko ezberdintasunik aipatu, eta aipatzen denean nesken erantzukizun maila altuagoa elementu “natural” batekin lotzen da.

Alderdi hauetatik guztietatik, zeintzuk dira zure bizitzan garrantzitsuenak diren hiru?



Grafikoa 1: Baloreak eta rol sozialak. Iturria: Badaiaiko Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak egina, mutilak 37, neskek 28

Nola irudikatzen duzu etorkizuna? Beharrezkoak diren guztiak markatu




Grafikoa 2: Etorkizuneko aurreikuspenak. Iturria: Badaiaiko Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak egina, mutilak 37, neskek 28


Formazio eta lan proiektuak adierazitako baloreen sendotasuna baieztatzen du. Hamar nesketatik zortzik unibertsitatean ikasi nahi du, eta hala ere, profesionalki hamarretik seik erantzukizunen bat bilatzen dute, buruzagitzan egon gabe. Mutilek, aldiz, formazio nahiak unibertsitatearen eta lanbide heziketaren artean banatzen dute, baina profesionalki %40k buruzagitza proiektatzen du, nesken % 17ren aurrean. Horrek, errealitatean ematen dena nahiko modu koherentean islatzen du.

Balore hauek konfirmatzen dituzte ere mutilek eta neskek garrantzi gehien ematen dieten lan balditzek. Neskek egonkortasuna, bizitzaren beste alderdiekin bateragarriak diren ordutegiak edo lan giroa baloratzen duten bitartean, mutilek soldata eta etxetik gertu egotea lehenesten dute, azken datu hau erlatiboagoa bada ere. Beraz, ondorioztatu daiteke, bai analisi kuantitatibotik -non balore

gehienak eskalaren erdialdean dauden- zein lan taldeetatik -non erantzunak baloreen eta lan asmoen gaineko galderenak baino berehalakoak izan diren-




Grafikoa 3: Ikasteko asmoa Iturria: Badaiaiko Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak egina, mutilak 37, neskek 28



Grafikoa 4: Asmo profesionalak Iturria: Badaiaiko Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak egina, mutilak 37, neskek 28


Zenbateko garrantzia dute alderdi hauek zuretzat lana aukeratzeko orduan, aukeratu ahalko bazenu? (Ezer ez, zerbait, asko)



Grafikoa 5: Lan baldintzen garrantzi erlatiboa, batetik bestera baloratua. Iturria: Badaiaiko Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak egin, mutilak 37, neskak 28


Aldiz, emantzipazio proiektuan aurrerapena ikusten da nesken autonomia eta independentziari dagokionez. Neskek etxetik alde egiteko arrazoi nagusia laneko edo ikasketen esijentzia dela uste duten bitartean, eta alde egin ahal izateko ezinbesteko baldintzak lan egonkortasuna eta familiaren laguntza izatea, mutilen ustez emantzipatzeko arrazoi nagusia bikotean bizi nahi izatea da, eta ezinbesteko baldintza bezala aipatzen dute diru nahikoa eta norekin bizitzea izatea.

Zeintzuk dira zure ustez emantzipatzeko alderdi garrantzitsuenak? GEHIENEZ 2 aukeratu (BAKARRA EDO BI PROPOSAMENAK AUKERATU DITZAKEZU)



Grafikoa 6: Emantzipaziorako ezinbesteko baldintzak. Iturria: Badaiaiko Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak egina, mutilak 37, neskak 28

Zeintzuk uste duzu direla etxetik alde egiteko gutxieneko baldintzak? GEHIENEZ 2 aukeratu (BAKARRA EDO BI PROPOSAMENAK AUKERATU DITZAKEZU)




Grafikoa 7: Iturria: Badaiaiko Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak egina, mutilak 37, neskak 28

3.2 EKONOMIA ETA DIRU-SARRERAK

Bigarren azterketa eremua neska eta mutilen diru-sarrera iturrien gaineko izan da, maneiatzen duten diru-kopurua eta kudeatzeko eta gastatzeko moduak.

Taldeetan, neska zein mutilek eta elkarrizketatutako amek jakinarazi dute gehienek ez dutela paga finko edo aldizkakoa jasotzen, baizik eta beharren arabera eskatu eta jasotzen dutela dirua. Amentzako, nerabezaroa, inkestan parte hartu dutenen adinik ohikoena, euren seme-alaben gastua kontrolatu nahi duten garaia da, eta gazteentzat sistema hori erosoagoa da, behar dutenean diru-sarrera gehiago jasotzen dutelako. Kasu gehienetan beste senide batzuk ere dira noizean behin edo data zehatzetan diru estra ematen dutenak.

Diru iturrien gainean ezberdintasunak hauteman ez badira ere, ez inkestetan ezta taldeetan ere, neska eta mutilek inkestan adierazi duten diru kopurua altuagoa da mutilen artean. Mutilen % 21ek bakarrik aitortu du 5 euro baino kopuru txikiagoa duela gastuetarako, eta nesken ia erdia dago diru tarte horretan. Mutil gehienek 5 eta 10 euro artean gastatzen duela aitortzen du eta gastu tarte handiengan, 30 euro baino gehiago, mutilak bakarrik daude, % 13.




Grafikoa 8: Asteko diru-sarrerak. Iturria: Badaiaiko Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak egina, mutilak 37, neskak 28

Neska zein mutilen gastu nagusia litxarrerietan da, baina neskek bigarren postuan arropa aipatzen dute. Horrek agerian uzten du beraiantzat dagoen presioa handiagoa dela -eta gastua- itxura ona izateko lehentasun pertsonal bezala


hartzen ez badute ere, eta mutilek baino heren bat gehiago aipatzen dituzte liburuak, CDak eta zinema.

Mutilen % 10ek, aldiz, janarian, parrandan eta bideojokoetan gastatzen du, eta neska bakar batek ere ez du bere gastu nagusien artean aintzat hartu.




Grafikoa 9: Gastu nagusiak. Iturria: Badaiko Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak egina, mutilak 37, neskek 28

Aurrezteko ohituretan ere ezberdintasun garrantzitsuak daude. Mutil eta neska gehienek aurreztu ohi dutela diote, baina neskek bakarrik egiten dute mutilek baino ehuneko hogeit hamar gehiagotan. Hauek, biekin -aita eta ama- edo amaren laguntzarekin egiten dute gehiago. Batek ere ez du aipatu, ez neskek ez mutilek, aitarekin aurrezten duenik.



Grafikoa 10: Aurrezteko ohiturak. Iturria: Badaiako Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak egina, mutilak 36, neskak 28

Ez-ohiko gastuak finantzatzeko estrategiak ezberdintasun hauekin koherenteak dira. Neskek aurrezkiea nahi dutena lortzeko lehendabiziko estrategia bezala erabiltzen duten bitartean, mutilen lehenengo estrategia aita eta amari dirua eskatzea da.



Grafikoa 11: Aurrezteko estrategiak. Iturria: Badaiaiko Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak egina, mutilak 36, neskak 28

3.3 GENERO EZBERDINTASUNAK HAUTEMATEA

Orokorrean, neska eta mutilen erantzunak bilduz, neskak hobeto definitzen dituzten ezaugarriak dira sentikorrak direla, euren irudiak kezkatzen dituela, langileak eta inteligenteak, eta mutilak hobeto definitzen dituztenak dira “dinamikoak eta aktiboak”, dependenteak eta azalekoak direla.


Datu guztiak aintzat hartuz, femeninoaren ideia sentikortasunarekin, edertasunarekin eta obedientziarekin lotzen jarraitzen da -ikasle rola hartzera eboluzionatu duena-, zaintza elementu askorekin, etxeko loturari eta ulermenari lotuta, maskulinoaren ideia, aldiz, proaktibotasuna eta ekintzatik sortzen jarraitzen da (dinamikoak, aktiboak, ekintzaileak, independenteak), dependentsia emozionaleko, azalekotasun eta posesibotasun elementu garrantzitsuekin.

NESKAK EZAUGARRITZEN DITU	
Sentikorrak	% 98,08
Irudiak kezkatzen ditu.	% 95,92
Langileak, ikasleak	% 94,64
Inteligenteak	% 94,50
Etxeari lotutakoak	% 91,84
Ulerkorrak	% 91,67
Arduratsuak, zuhurak	% 90,91
Azalekoak	% 89,36
Posesiboak, jeloskorrak	% 87,76
Lasaiak	% 86,00
Dinamikoak, aktiboak	% 84,91
Independenteak	% 84,31
Ekintzaileak	% 81,13
Dependenteak	% 76,19

MUTILAK EZAUGARRITZEN DITU	
Dinamikoak, aktiboak	% 86,79
Dependenteak	% 85,71
Ekintzaileak	% 83,02
Azalekoak	% 82,98
Independenteak	% 74,51
Posesiboak, jeloskorrak	% 73,47
Inteligenteak	% 72,73
Etxeari lotutakoak	% 71,43
Irudiak kezkatzen ditu.	% 69,39
Langileak, ikasleak	% 66,07
Arduratsuak, zuhurak	% 65,45
Lasaiak	% 60,00
Sentikorrak	% 55,77
Ulerkorrak	% 54,17

Gainera, presio sozialaren hautemateak ere genero ezberdintasun garrantzitsuak islatzen ditu oraindik. Lanean eta ikasketetan arrakasta izateko beharrak bi sexuek gehien aipatzen dutena bada ere, mutilek gehiago sentitzen dute, sare sozialetan arrakasta izateko presioa bezala. Aldiz, neskek tristura eta antsietatea ezkutatzeko eta fisikoki erakargarriak izateko presio handiagoa sentitzen dute.


Batzuetan familiaren, lagunen, irakasleen edo gizartearen presioa sentitu dezakegu modu zehatz batekoak izateko. Zuri kaltetzen dizutenak adierazi



Grafikoa 14 : Iturria: Badaiaiko Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak egina, mutilak 35, neskek 28

Neskek bizitzaren eremu ezberdinetan mutilekin alderatuta duten egoeraren hautematearekin lotuta, lan eremua, soldatak eta baliabide ekonomikoak eskuratzeko ahalmena, erantzukizuna duten lanpostuetan sartzea, bizitza pertsonala eta familia bizitza kontziliatzeko aukerak eta nahi izatekotan bikotearengandik banatzeko eta hura uzteko aukerak aztertu dira. Orokorrean, eremu guztietan nesken egoera mutilena baino okerragoa dela uste da.

Nolakoa uste duzu dela nesken egoera mutilekin alderatutako eremu hauetan (1 “askoz okerragoak” eta 5 “askoz hobekak” direla)




Grafikoa 12: Genero ezberdintasunen hautematea eremuen arabera. Iturria: Badaiaiko Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak egina, mutilak 34, neskak 27

Gazteen egoerarekin lotuta inguruan egindako aurreko azterketekin lotutako aldaketa garrantzitsua da gizarte mailako desberdintasun bat dagoenaren hautematea handitu dela, nesken artean mutilen artean baino gehiago. Nesken % 80k, mutilen % 67en aurrean, uste du desberdintasunak oraindik handiak edo oso handiak direla, eta bost mutiletatik batek bakarrik uste du oso handiak direla, hautemate hori nesken ehuneko bikoitzak duen bitartean.


Hala ere, bai taldeetan baita inkestetan ere, ikusi da uste dutela desberdintasunaren hautemate honek ez duela eraginik -edo eragin txikiagoa duela uste dute- gazteengan helduengan baino. Horrela, nesken % 40ak uste du desberdintasunak “hala hola” kaltetzen dituela gazteak.

Ez baitira kontziente zein neurritan jarraitzen diren erreproduzitzen genero rola eta estereotipoak. Beraz, dagoeneko lortutako berdintasunaren irudikeriak jarraitzen du, euren erantzunek islatzen dutena baino handiagoa den sexuen arteko berdintasun maila existitzen denaren ustea.

Horrela, taldeetan ez neskek ezta mutilek ere ez zuten uste karrera profesional batean sartzeko diskriminazioa zegoenik, ezta mutilei edo neskei gehiago lotutako karrera profesionalak daudenik ere, eta horretaz gain, taldeetan parte hartu zuten neska guztiek, batek izan ezik, aipatu zituzten feminizatutako karrerak, psikologia edo medikuntza, eta mutil guztiek aipatu zituzten maskulinizatutako karrerak, suhiltzailea, polizia edo enpresarioa.




Grafikoa 13: Gizarteak desberdintasuna nola hautematen duen. Iturria: Badaiaiko Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak egina, mutilak 34, neskak 27



Grafikoa 14: Gazteek desberdintasuna nola hautematen duten. Iturria: Badaiako Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak eginga, mutilak 34, neskek 27


3.4 DISKRIMINAZIO EGOERAK.

Gazteek desberdintasuna gutxiago hautemateak neskek generoa eurengan eragina duen diskriminazio faktore bezala ez ikustea dakar, edo behintzat, ez irudi fisikoa bezain beste, neska zein mutilek hautematen duten faktorea. Hala ere, mutilek generoa aipatu dute irudia bezain garrantzitsua den elementu bezala. Ikusgarritasuna eta berdintasunerako politika eta neurrien ekintzak handitzeak diskriminatuta sentitzera daramatza. Lan taldeetan ikus daiteke. Bertan, mutilek aipatu zuten neskenzako jarduerak egiten zirela eta institutuan mutilak baino hobeto tratatzen zituztela.



Grafikoa 15: Iturria: Badaiaiko Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak egina, mutiak 34, neskek 27


Zein eremu edo egoera zehatzean sentitu zara generoagatik diskriminatua, gertatu bazaizu? DAGOZKION GUZTIAK AUKERA ITZAZU



Grafikoa 16: Iturria: Badaiaiko Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak egina, mutilak 34, neskek 27

Neskek onartezintzat dituzten diskriminazio faktoreak, gehien interpelatzen dituenak, haurrak aldatzeko mahaiak nesken komunean egotea da. Izan ere, taldeetan klabe den diskriminazio adibide bezala aipatu zuten, eta eztabaidatu zuten gizonen komunean umeak aldatzeko mahaiak egon behar zirenak, edo gizonen eta emakumeen komun ezberdinak egotea beharrezkoa zen edo banakako komunak bakarrik egon behar zirenak. Gehien aipatu duten bigarren faktorea piropoak dira, mutilek gehien aipatu duten faktorea, ia erdiak. Beraz, jarrera aldaketa garrantzitsua eman da mutilen kontzientzian irudiaren gaineko iritzirik ez emateko garrantziaren inguruan.


Egunerokoan sexismo edo generoa dela eta diskriminazio adibide txikiak eman daitezke, askotan bizi ohi ditugunak. Aipatutakoen artean, GEHIENEZ HIRU adibide adierazi, onartezinak iruditzen zaizkizunak (BAT, BI EDO HIRU AUKERATU DITZAKEZU)



Grafikoa 17: Inguruko sexismoaren behaketa. Iturria: Badaiaiko Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak egina, mutilak 34, neskek 26


Berdintasun politiken ikusgarritasun handiagoaren ondoriozko aldaketa garrantzitsu bat islatzen duen beste puntu bat da feminismoaren kontzeptua. Duela urte batzuk gazteekin egindako ikerketetan euren burua feministatzat jotzeko erresistentzia garrantzitsua ikusten bazen ere, orain elkarrizketatutako hamar nesketatik bederatzik feminista dela esan du. Hala ere, ikusi dugun bezala, definizio hau ez da kaltetzen dituen genero diskriminazioen kontzientzia handiagoaren ondorio, baizik eta gizarte mailako desberdintasunaren hautemate handiagoarena. Kontzientziazio honek berdintasunaren eta euren esperientzien gainean ikasi eta eztabaidatzeko ageriko interesa dakar. Lan taldeetan apuntatutako nesken bikoitzak parte hartu zuen -taldeak egingo zirela enteratu ez zirelako-, eta gainera, bazkaltzerako orduan batek ere ez zuen eztabaida utzi nahi izan, eta denek nahi izan zuten formazioarekin jarraitu bazkaltzeko orduetan.

Beraz, diskriminazio mailaren kontzientzia baxua dagoen arren, Añanako gazteekin lan egiteko aukera zabal garrantzitsua dago.



Grafikoa 18 Feminista bezala autodefinitzea. Iturria: Badaiaiko Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak egina, mutilak 33, neskek 23

Ondoren, ados zauden esaldiak adieraztea gustatuko litzaiuke.



Grafikoa 19: Berdintasun neurriekin duzun adostasun maila. Iturria: Badaiako Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak egina, mutilak 33, neskak 24


3.5 GIZARTE HARREMANAK ETA LAGUNAK

Egun Añanan neska eta mutilen talde gehienak mistoak dira, mutilek mutilen taldeak izateko neskek baino joera handiagoa badute ere.

Berdinekin egiten dituzten jarduerak oso antzekoak dira, eta ohikoena da kalean edo parkeren batean egotea. Laginaren adinak nerabezaroan zentratzen dira gehiago, lonjak alokatzeko antolatzen ez direnean oraindik, eta datu hori azaldu dezake.


Genero bretxa handienak ikus daitezkeen bi jarduerak dira zinema, neskak gehiago joaten direna, eta kirola, mutilek kasuen bikoitzean egiten dutena.

Lan taldeetan eta inkestaren erantzun irekietan, kirola da neskei egitea gehien gustatuko litzaiekeena, baina denbora dela eta, eta euren ordutegi eta beharretara egokitzen diren jarduerak ez daudelako egin ezin dutena.




Grafikoa 20: Lagun taldea. Iturria: Badaiaiko Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak egina, mutilak 34, neskek 26

Zer egin ohi duzu zure lagunekin geratzen zaretenean




Grafikoa 21: Lagunekin egiten dituzten jarduerak. Iturria: Badaiaiko Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak egina, mutilak 34, neskak 26



Grafikoa 22: Iturria: Badaiaiko Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak egina, mutilak 33, neskak 26

Klasetik irteetan egiten dituzten jarduera ohikoenen artean, berriz ere bi sexuen lehenetsuen arteko ezberdintasunak baieztatzen dira: neskontzat ohikoena ikastea edo etxeke lanak egitea da, eta mutilentzat kirola egitea eta bideojokoak.

Klasetik irtetean egin ohi duzuna adierazi




Grafikoa 23. Klasetik irtetean egiten dituzten jarduerak. Iturria: Badaiaiko Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak egina, mutilak 34, neskak 26

Azkenik, berdinen arteko harremanetan asteburuetan gaez etxera itzultzeko ordutegietako ezberdintasunak aztertu ditugu. Neska eta mutil gehienek ordutegia gaueko hamarrak baino lehen edo hamarrak eta hamabiak artekoa da. Baina etxera itzultzeko ordutegirik ez duten edo goizeko hiruren osteko ordutegia duten mutilak % 20 dira, neskak baino zortzi ehuneko puntu baxuagoa.


Berandu heltzeko estrategiak ere ezberdinak dira, oso ezberdinak. Neska eta mutil gehienek aita eta amarekin edo amarekin bakarrik negoziatzen dute, eta aitarekin negoziatzen dutenak askoz gutxiago dira. Hala ere, mutilek nesken erdia egiten dute kasu, eta mutilek diote negoziatzen dutela, edo negoziatu gabe nahi dutena egiten dutela neskak baino bost kasuetatik batean gehiago.

Asteburuan zure lagunekin irteten zarenean, zein da etxera joateko ordua?



Grafikoa 24 Etxera heltzeko ordua. Iturria: Badaiaiko Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak egina, mutilak 32, neskak 25

Zer egiten duzu beranduago heltzeko?



Grafikoa 25: Beranduago heltzeko estrategiak. Iturria: Badaiaiko Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak egina, mutilak 31, neskak 25

3.6 HARREMANAK GURASOEKIN

Añanako gazteek euren aita eta amarekin duten harremana aztertzeko, bakoitzarekin zein gairi buruz hitz egiten duten galdetu diegu. Mutilek hiru gai berdinei buruz hitz egiten dute aita eta amarekin: institutuan nola dabiltzan, zer arazo dituzten eta euren lagunak nortzuk diren.

Neskek ere diote institutua dela biekin hitz egiten duten gai nagusia, baina amarekin euren arazoei buruz hitz egiten dute, aitarekin lagunei buruz eta aisialdian egiten dutenari buruz hitz egiten duten bitartean. Neskek aitarekin duten harremanak kontrola du oinarri konfiantza baino gehiago, mutilekin ez bezala, aitarekin hitz egiten dituzten gaien artean kontrolarekin lotuta daudenak azken lekuan daude eta, harreman sentimentalak izan ezik.


Zeintzuk dira aitarekin gehien hitz egiten dituzun gauzak? Hiru erantzun adierazi.

	MUTIL AK		NESKA K
7. Institutuan/eskolan/ikastetxean nola zoazen	% 22,78	7. Institutuan/eskolan/ikastetxean nola zoazen	% 27,78
3. Zure arazoak	% 20,25	1. Zure lagunak nortzuk diren	% 19,44
1. Zure lagunak nortzuk diren	% 17,72	6. Zure denbora librean zer egiten duzun	% 16,67
2. Dirua nola gastatzen duzun	% 11,39	3. Zure arazoak	% 12,50
5. Gauean nora joaten zaren	% 10,13	2. Dirua nola gastatzen duzun	% 9,72
4. Zure ligeak/bikotea	% 8,86	5. Gauean nora joaten zaren	% 9,72
6. Zure denbora librean zer egiten duzun	% 8,86	4. Zure ligeak/bikotea	% 4,17

Zeintzuk dira amarekin gehien hitz egiten dituzun gauzak? Hiru erantzun adierazi.


	MUTIL AK		NESKA K
7. Institutuan/eskolan/ikastetxean nola zoazen	% 25,00	7. Institutuan/eskolan/ikastetxean nola zoazen	% 28,57
3. Zure arazoak	% 21,05	3. Zure arazoak	% 18,18
1. Zure lagunak nortzuk diren	% 15,79	1. Zure lagunak nortzuk diren	% 15,58
5. Gauean nora joaten zaren	% 13,16	2. Dirua nola gastatzen duzun	% 11,69
6. Zure denbora librean zer egiten duzun	% 10,53	5. Gauean nora joaten zaren	% 10,39
4. Zure ligeak/bikotea	% 9,21	6. Zure denbora librean zer egiten duzun	% 10,39
2. Dirua nola gastatzen duzun	% 5,26	4. Zure ligeak/bikotea	% 5,19

Zeintzuk dira aitarekin gehien hitz egiten dituzun gauzak? Hiru erantzun adierazi. ¿De cuáles de estos temas hablas más con tu padre? Señala tres respuestas.



Grafikoa 29: Aitarekin gehien hitz egiten dituzten gaiak. Iturria: Badaiaako Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak egina, mutilak 31, neskak 25

Zeintzuk dira amarekin gehien hitz egiten dituzun gauzak? Hiru erantzun adierazi.




Grafiko 30: Amarekin gehien hitz egiten dituzten gaiak. Iturria: Badaiaiko Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak egina, mutilak 31, neskak 25

3.7 ZAINZA ETA NORBERAREN ZAINZA


Denboraren erabileraren analisiak lehendabiziko puntuak ikusitako baloreak baieztatzen ditu, hau da, genero rolek jarraitzen dutela.

Neskek zaintzarekin gehien lotutako denboraren erabilera guztiak markatzen dituzte: Familiarekin egon, lagunekin egon, ikasi, edo bikotearekin egon. Mutilen jarduera nagusiak lagunekin egon eta kirola egitea dira. Norberaren zaintza neskeentzat janariak markatzen du, eta mutilentzat kirola.



Grafikoa 26 Denboraren erabilerak. Iturria: Badaiaiko Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak egina, mutilak 31, neskak 21


Bestalde, etxean egiten dituzten lanek ere genero joerak dituzte: neska gehienek euren ohea egiten dute, % 90, eta mutilen erdiak baino apur bat gehiagok, eta lautik hiruk euren gela garbitzen du.



Grafikoa 27: Iturria: Badaiaiko Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak egina, mutilak 31, neskek 21

Dagoeneko lortutako berdintasunaren irudikeriak, nesken artekoa batez ere, aurreko puntuetan ere ikusi duguna, etxeko lanetan gizon eta emakumeen parte-hartzearen hautematean hasten dela ematen du. Nesken hamarretik zazpik diote euren etxean etxeko lanak emakumeek zein gizonek egiten dutela berdina, eta mutilen erdiak baino gehiagok dio emakumeek edo batez ere emakumeek egiten dituztela.

Etxekoek etxeko lanetan edo dependentzia duten pertsonen zaintzan duten parte-hartzean oinarrituz, zure etxeko lanak nortzuk egiten dituztela esango zenuke..




Grafikoa 28: Iturria: Badaiaiko Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak egina, mutilak 31, neskak 20

Azkenik, seme-alabak izateko asmoarekin lotuta, inkestan gehienek baietz erantzun badute ere, eztabaida taldeetan neska nagusien erantzuna banatuago dago. Gainera, lanak banatzeko moduari buruz galdetzen zaienean, aukera nagusia bikotearekin erdibana izaten zen, eta bikotearen ordutegiak zaintzarekin bateraezina izatearen edota beraiek baino diru gehiago irabaztearen aukera planteatzean, askok euren erantzuna birplanteatu zuten.


Amek eta irakasleek uste dute gai hau euren seme-alabak pentsatu ez duten gaia dela, eta ez dagoela euren ohiko mintzagaien artean.

Etorkizunean seme-alabak izan nahi dituzu?




Grafikoa 29: Iturria: Badaiaiko Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak egina, mutilak 31, neskak 21

Baiezkoa izatekotan, nola antolatuko zinateke?



Grafikoa 30: Iturria: Badaiaiko Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak egina, mutilak 30, neskak 20


Ados zauden esaldi guztiak adierazi itzazu Erabat ados ez bazaude ere, bat behintzat adierazi




Grafikoa 31: Iturria: Badaiaiko Institutuan egindako inkestan jasotako datuetatik abiatuta egileak berak egina, mutilak 31, neskak 20

3.8. BIKOTE HARREMANAK ETA INDARKERIA MATXISTA


